

GORPUTZ ETA SOIN HITZEZ ETA ABAR

Alfonso Irigoyen

Badira bost urte luze Euskal Akademiaren batzarre batean artikuluska bat irakurri nuela *gorputz* eta *soin* hitzez eta mutikopistaz berreginek zabaldu zuten euskaltzain eta laguntzaileen artean. Hain zuzen ere 1971-garren Urtarrilaren 29-an izan zen eta urrengo batzarrerako oharrak bidali zituzten Labayen, Arrue, Lekuona, Aita Intzakoa, Zatarain, Satrustegi, Salvador Barandiaran, Etxaburu, J. Azpeitia, Basauri eta Villasante jaunek. Geroago Txomin Peillen-ek ere behintzat eman zuen eritzia. Ohi ez den bezalako mogimentua sortu zuela ene artikuluskak begien bistan dago. Hala ere gero ez ziren *Euskera* aldizkarian argitaratu.

Honela zion eneak:

“Euskaltzaindiko jaun prestuak:

Batzarrerako deian gai bat dator honela diona: “f) Giza soina hiztegia aztertzeke batzordea”.

Zerbait adierazi nahi dut *giza soina* hitz elkartuaz:

Soin hitza, denok dakigun bezala, *gorputz* hitzaren orde erabili izan du zenbaitek izkribuetan, azkenengo hau prestamo bat delako *corpus* latinezko hitzetik datorrena, Euskal Herri osoan ondo sustraitua badago ere aldakuntza txiki batzuk gora behera. Baina, hain oker ere *soina* ez da ‘gorputza’ oraindik hitza bizirik dagoen lekuetan. *Soinean* eta *soineko* Euskal Herri osokoak dira, ordea.

Euskera-n ikus daiteke “Vocabulario baztanés de Juan Bautista Gorosurreta (1845-1923)”, VII (1962), 183 orr., nik neuk argitara emana. Bertan dio: “*Soin*, espalda u ombro (sic), incluso la parte superior de los brazos. *Eramanazazu soin soin*, llégame (sic) a cuestras, *tori egurra soin gaiñera*, toma la carga al ombro (sic). *Soiñeko*, saya, nombre impropio, deve (sic) ser vestido, por ser *soin* ombro (sic)”.

J. M.^a Satrustegi-k “Vocabulario popular”, *Euskera*, VIII-IX (1963-64), 277 orr., dio: “*Soineko*, vestido. *Soingain*, hom-

bro, hombreras''. Azkenengo honek Luzaide-ko hitzak bezala ematen ditu.

N. Landuchiok (1) dio: "*Guiçonan soña ombro de hombre*", eta Azkuek bere hiztegi nagusian dakartzkien exenploak ere ez daude *soin* erdarazko 'cuerpo' izatearen alde, itzulpen hori ere emanagatik.

Erraz ikus daiteke alderdi guztietan horrenbeste erabiltzen den *soinean*, inesibo kasuan dagoen hitza, erdarazko 'a cuestras' dela, hau da 'sobre los hombros o las espaldas'. Bizkaian behintzat *aldean* ere erabiltzen da gauza bera adierazteko: *soin* oinharritz izan beharrean *alde* duela, 'lado, costado, flanco', latinez 'costa'.

Gorputz hitza, alderdi guztietakoa denez gero, dudarik gabe erabili behar dugu batasunaren izenean. Batasuna egina dagoen gauzetan dagoen dagoenean utzi behar dela argi dago eta hain zuzen ere batasunerako hiztegian sartua dago, *Euskera*-n ikus daitekeenez, XIII (1968), 258 orr.

Beraz, *giza gorputz hiztegia* edo antzeko gauzaren bat behar luke''.

Ikus daitekeenez ohar gisako lantxo honek helburu bat bakarra zuen: gure hizkuntza tradizio zaharraren arauera erabili eta besteri erabili eragitea, horrela, gainera, batasunaren oinharri hobeak, sendagoak eta azpikaldeko hutsik gabekoak ezar ditzakegulakoan. Hitzen aldetik, gainera, esan nahi bereziagoak lortuko genituzke, zeren bata zentzu baterako erabil baitezakegu eta bestea beste baterako, hizkuntzaren aberastasunaren mesedetan edo ez behintzat kaltetan, aberastasun hori lehendik baikenduen. Aski nuen, beraz, tradizioa nolakoa zen finkatze hutsa egitearekin, Abandoko Arranoak edo bestek bere denboran eskaini zitzakeen gauza honak nahiz estratan eginikako gogoeta eroak edo eroak ez zirenak gora behera, kasu honetan batere axolarik ez baitu zuzen ala oker zebiltzan jakitea delako Arranoa, arranokumeak edo beste norbait. Guk hizkuntza oker ez erabiltzearekin aski dugu hasteko. Horretan ahalegindu behar dugu bederen, konturatu gabe okerbidera makurtzeko arriskua badugu

(1) N. Landuchio, *Dictionarium linguae cantabricae* (1562), Manuel Agud eta Luis Mitxelena-k Donostian 1957-garren urtean argitaratua. Hiztegi honek Araba aldeko euskararen testigantza ematen du, Bizkaikoaren kide zen euskalki zahar batena.

ere. Edozein modutan ere haiek honezkerero, zorionez ala zorigaitoz den ez dakit, ez dute asko sifrituko edo gozatuko gure hizkuntzaren gainean ditugun eritziak gora behera.

Eta ez dut uste inork, deuseztatu nahi zuten artekok, eta ez bestek, nik esanikakoetarik ezer deuseztatu zuenik, zeren inork balio ere inoiz zapatak soinetik gau eta egun kendu gabe erabil daitezkeela nork bere burua hestu eta larri ikusten dueanean eta kasu horretan *soina* oinei ere esaten zaiela, berehala erantzungo bainioke erdaraz ere berdin gertatzen dela eta "que los zapatos se pueden llevar día y noche a cuestras sin quitarlos cuando uno se encuentra en trances difíciles, aunque, naturalmente, *cuestras*, plural, se deriva del latín *costa* que significa 'costado' y no 'pie', como es notorio". Eta herri edo eskualdeska bakar batean *gorputz* hitzak duen zentzu berbera ematen diotela besteari esango balit oraintsuko joera berria dela susmoa hartuko nuke eta diona hala izan dela historian zehar probatzeko eskatu beharko nioke, eta ezin badu, nola heldu den hala izatera gutxienez. Ez nuke beste erremediorik izango ene buruarekin garbi jokatu nahi baldin banu.

Ene hitzetarik erraz kontura daitekeenez oraintsu L. Mixelena agertu zaigu darabilgun gai hau gogoan duela, ikus "Gorputz eta soin", *Euskera* XX (1975), 353-358 orr., eta Euskal Akademiaren batzarre batean bere lana irakurri zueanean ni presente egon nintzen eta baita elkar hizketan parte hartu ere. Eta "butzu ondargabe horretan" "gorputz-zale nahiz soin-zale nahiz erdibideko agertuaz" murgildu nahi ez badu ere zenbait gauza adierazten ditu gure artean zabaldua dagoen gaitz kaltegarri batez, alegia. ez gazteak ez zaharrak ez dutela ezertaz oroitu nahi eta batez beste barkakizunago omen gara gazteak. Eskerrik asko gazteagooi tokatzen zaigunagatik.

Arranoa eta ondorioz Arriandiaga tradizioaren bidetik zebiltzala kasu horretan? eta, gainera, arrazoi bategatik edo bestegatik halako kasuetan zuten joerez kontra? Bada, gu ere hizkuntzaren tradizio zaharretik zehar baldin bagabiltza nahi eta nahi ez bidean gurutzatu behar. Nik harriak beheruntz erortzen direla baldin badiot ez uste izan ezagutzen ez nauen eta enekin ikustekorik ez duen beste niganik urruneko batek gauza berbera esan nahi baldin badu nahi eta nahi ez eni entzun gabe ezin esan dezakeenik. Are gehiago, harritu egingo ginাতেke besterik balio. Edozein modutan ere nik ez dakit

hemen zer izango litzatekeen erdibideko agertzea. Agian beste batek harriak goruntz erortzen direla balio, erdibidekoak ez direla ez goruntz eta ez beruntz erortzen erantzun beharko luke gutxienez, aidean gelditzen direla, eta horrela, zuhurtziaren izenean edo, inorekin ez asarratzearen linboan geldituko litzateke. Delako erdibidea hartu baino lehen askozaz ere hobe genduke, argi ikusiko ez bagendu, ez dakigula esatea, zeren azken finean ez jakitetik hasirik sortzen eta finkatzen baitira jakituriaren oinharriak, milaka urte direla jadanik bazekitenez.

Halabaina, ez dut inola ere esan nahi lehenago izan diren eritziak jakitea komeni ez denik, zeren hori historia bera ukatzea besterik izango ez bailitzateke eta guk geuk, historia-ren frutua besterik ez izanik, oinharriak iragan diren garaie-tan baititugu. Eta alperrikakoa izango litzateke historiaren ezagutzeak gure burua ezagutzearekin eta azken finean jakituriarekin duen lotura baieztatzen momentu honetan denbora gehiegi ematea. Lehenago izan diren eritziak, gainera, denak orain ditugunekin bat ez baletoz ere, gutxienez zein bidetatik ez jo argiago erakutsiko ligukete eta kasurik hoberenean gure pentsaera aberastu edo aldatu egingo lukete.

Gorputz eta *arima* hitzez karlisten azkenengo gerrate ondoan gure artean lehenengo aldiz mintzatu zena Migel Unamuno izan zen. Hala zion: "De los vocablos religiosos se pasa por natural transición a los que indican ideas suprasensibles y psicológicas. Entre éstos tenemos *izpiritu*, el espíritu, y *arimá*, *arimia*, *animá*, del latín *animam*. No deja de chocar que el nombre con que el vascuence llama al cuerpo, *gorputz*, deriva del latín *corpus*, pero esto se explica. Toda idea presupone su contraria; no puede tenerse idea de lo finito como tal sin tenerla de lo infinito; la ley primordial del conocer es la ley de la oposición y la semejanza; así es que la idea de cuerpo se concibe como opuesta a la de alma, y donde no existe ésta no existe aquella, pues se llama el hombre sin distinguir cuerpo humano de hombre". "Del elemento alienígena en el idioma vasco", *Revista de Vizcaya*, Bilbao, año I, tomo I (1885-86) núm. 8, 16 de febrero de 1886, 259-269 orr., núm. 9, 1 de marzo de 1886, 295-305 orr., Ikus baita ere *Obras completas* IV, Madrid 1966, 120-135 orr.

Unamuno-k ordurako bere tesis irakurria zuen Madrilen beherago azalduko dugunez.

Sabino Arana Goiri-k ez zuen bere lehenengo artikulua "Etimologías sueltas, ¿vasco o basco?" urte bereko uztailaren 1-erarte errebista berean argitaratu, 166-176 orr., eta gero *Etimologías euskéricas* delakoan 1887-garren urtean sartu zuen. Ikus *Obras completas de Arana Goiri'ttarr Sabín*, Buenos Aires 1965, 31 orr. eta urrengoak. Arana Goiri-k berak dion fetxa ez da zuzena, uztailaren 15-a baitio eta titulua ere ez du berdin ematen: "Basco o vasco". Unamuno-rena "Vasco o Basco" tituluarekin, apirilaren 1-ean agertua zen jadanik leku berean, 399-404 orr.

Unamuno-k "Vasco o basco" delakoa argitara zuen numero berean Tomás Escriche y Mieg, Bilboko Institutoan irakasle zenak artikulua bat argitara zuen "El vascuence" tituluaren azpian, 392-398 orr., lehenengoak "Del elemento aliénigena en el idioma vasco" delakoan esan zituen zenbait eritzi, prestamo delakoekin ikustekorik ez zutenak kritikatu eta euskararen bizitzaren alde agertuz. Hala dio: "Dijérase mañana al pueblo vasco que era dueño de dejar el castellano y usar como lengua oficial y exclusiva la suya propia, y este solo acto voluntario de un gobierno (acto más o menos político, no discuto eso) bastaría para asegurar una gran vitalidad al vascuence, a pesar del incesante roce con los forasteros. Probablemente entonces llegaría a estar de moda su cultivo, y la minoría de personas acomodadas que hoy lo desprecian y hacen alarde de olvidarlo, se apresurarían a estudiarlo y recordarlo con empeño". "...Sólo una respuesta entiendo que podría dar a esto el señor Unamuno: "no queremos", o "no quieren" si es que personalmente deseaba él sustraerse del número de los indiferentes".

Unamuno-k urrengo numeroan erantzun zion, apirilaren 16-ekoan, 422-426 orr., "Más sobre el vascuence" lanarekin, *Obras completas*, 141-144 orr., eta maiatzaren 1-ean "Algunas palabras más sobre el vascuence" delakoarekin Escriche-k, 11-20 orr., Ez ditugu aipatzen hemen hizkuntzen gainean eman zituzten zenbait eritzi egungo gaitik gehiegi ez urruntzeagatik.

Sabino Arana Goiri-k ere gorengo aipatu dugun Unamuno-ren lanari erantzuna prestatu zion, argitara ez bazen ere. Hala dio bere lan batean Unamuno-ri berari kritika gogorra eginik Bilboko El Sitio-n. *Orígenes de la raza vasca*

tituluarekin eginikako hitzaldiagatik eta *El Noticiero Bilbaino*-n Ismael Olea-rekin gurutzatu zituen artikuluekatik. (Unamuno-ren lan osoetan *Espíritu de la raza vasca* dio eta 1887-garren urtarrilaren 3-an izan zen, *Obras completas*, IV, 153.orr.): "Se queja este señor de que "aún muchos repiten como última palabra del Credo las afirmaciones de Larra-mendi, Astarloa, etc.". Sobre este punto tenemos ya escrito lo debido en las "Observaciones al artículo *Del elemento alienígena en el idioma vasco*" que el señor Unamuno publicó en la *Revista de Vizcaya*, y no volveremos aquí a ocuparnos de ello. "Lo que atacué y seguiré atacando con dureza... es esta literatura vascongada, fría, estéril y escrita en un dialecto que sólo sus inventores entienden". Lo que nadie entiende es ciertamente a qué se refiere en este párrafo el señor Unamuno. Determine y especifique los errores, teorías y arbitrariedades a que alude y entonces habrá lugar a que alguno *alce el dedo*. Ya en la *Revista de Vizcaya* "ha dado pruebas de sus doctrinas" y ha escrito algunos párrafos sobre la moderna escuela; así, pues, remitiendo al lector al folleto que he prometido, me excuso de ser prolijo en esta ocasión", *Pliegos histórico-políticos*, Barcelona 1888. Ikus baita ere *Obras completas de Arana-Goiri-ttarr Sabin*, 70 orr. eta urrengoak. Argitarzailleek nota batean diote: "... este trabajo no llegó a publicarlo, porque interrumpió la publicación de sus *Pliegos*". Lan hori argitara zuen urtean utzi zituen bere Bartzelonako ikasketak eta garaitsu horretan izan ziren Bizkaiko Diputazioak sorturikako euskal katedraren oposizio famatuak.

Edozein modutan ere geroagoko lan batean Arana Goiri-k dio: "*Arime** (alma), de *ari* y *me* (sutil): luz o *fuego sutil* (1)", "(1) A la *r* de *arime* ha sustituido una *n* en algún dialecto, por influencia del latín *anima*; la *r* del euskérico *arime* ha dado origen a la *l* del castellano *alma*. Esta etimología me hace juzgar sumamente probable el euskerismo de *arime*. En todo caso, aunque el vocablo *arime* proceda del latino *anima* y éste del griego *ánemos* (soplo, viento), debe ser adoptado en el Euskera, no como originario de *anima*, sino como compuesto de *ari* y *me*, pues no puede pedirse voz más apropiada para significar el *alma*", *Pliegos euskeralógicos*, 1892. Ikus *Obras completas*, 91 orr. eta urrengoak.

Ordurako Pablo Pedro Astarloa-k emana zuen *arima* hitzaren gaineko euskal etimologia berdintsua, ikus *Apología de*

la lengua bascongada, Madrid 1803, 410 orr. eta urrengoak.

Bila ari izan banaiz ere ez dut ikusi ahal izan *gorputz* hitzaz emanikako eritzirik, argitara eman baldin bazuen, agian ondo ikusmiratu ez dudalako, baina *Sacris solemnibus* kantan sartzen du, ikus *op. cit.*, 2418 orr. Uste dut gorago aipatu dudan kontrako hitzarentzat bezala arrazoiren bat izan zezakeela, dela itxuraz *-(p)utz* elementua sartzen delako hitzean, dela beste zerbait, ez erabiltzeko ahaleginik egin gabe ez baitzen geldituko bestela.

Arana Goiri-k *gogo* hitza erdarazko 'espíritu' bezala hartzen du. Horrela sortu zuen *Goteun* 'Izpiritu saindua' *gogo* eta *deun* sustantibo eta adjetiboa elkarturik konposizioko erregelen arauera, ikus "Análisis y corrección del pater noster del euzkera usual", *Euzkadi*, año I, núm. 4, diciembre de 1901, ikus *Obras completas*, 1913-1914 orr. *Gotzon* hitza ere modu berean sortu zuen 'aingeru' adierazteko eta euskal hitz zaharra baztertzeko asmoz, latinetik baitzeterren. Jatorria hitz greko batean du, latinak ere hartu egin baitzuen.

Egun Angel Goenaga S. I.-ri eskerrak euskal literatura zaharrean *gogo* hitzak hartu izan dituen esan nahien arakatzeko sakona dugu, ikus "*Gogo en refranes antiguos*", *FLV* 7 (1971), 25-34 orr., "*Gogo en Tartas*" *FLV* 8 (1971), 181-191 orr., "*Gogo en Axular*", "*Gogo en Oihenart*", *FLV* 14 (1973), 185-259 orr.

Ez dut uste egun inor dagoenik Unamuno-k esaten zuena *arima* eta *gorputz* hitzen jatorriaz ukatzen duenik eta ez da harritzekoa arranokumeak franko goiz hala pentsatzen hastea L. Mitxelena-ren aipaturikako lanean ikus daitekeenez. Gero Olabide-k *giza-soña* erabili zuen erdarazko 'el cuerpo humano' adierazteko titulu hori bera zeraman liburu batean, Tolosa 1917. Jakina, Arana Goiri-ren bide zuzenak berak hala eskatzen zuen behin lantinetikakoa zela finkatuz gero, bestelako etimologietan, *arima* bezalakoetan alegia, sartu ezik, alderdi batera uzten dugula ondo ala gaizki egin zuen *soin* hitza horretarako aukeratzeaz Arriandiaga-k 1912-garren urtean esan zituenen ondoan. Dena dela, horrenbeste sarri bortxatu zituen hitzak maisuak ere.

Azkue-k ordea, honela dio bere *Prontuario* delakoan: *Gizonaren gorputza. Zugatzak bezela, gizonak ere goian burua, erdi-inguruan soina ta bealdean oinak ditu. Ikus Pron-*

tuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular, Bilbao 1917, bigarren edizioa 1932.

Gogo ere arima hitzaren ordeaz erabili izan dela berandua-gu begien bistakoa da. Bilbon bederen egunkarietan argitaratzen diren hilen eskela bat edo bestetan hala agertu izan da oraintsurarte.

Baina egun, mundu guztiak dakienez, honela mintzatzen gara: latinetikakoa dela? Eta zer? Erdarazkoa ez da behintzat, zeren erdaraz inork ez baitu esaten sekula: "su gorputz apareció flotando en las aguas de la ría". Barre egingo ligukete. Euskarazkoa ez baldin bada orduan zer da? Txinoa? Ustedut aski mintzatu izan garela honetaz orainarte.

Arima eta gorputzaren artean oposizioa argi markaturik hitz egiteko ohitura Eliza kristauak zabaldu zuen, baina berez Greziako filisofian du jatorria, zeren kredoan kristauak sinistu behar duena erakusten denean *haraguiaren resurrectioneaz* mintzatzen baita, Leizarraga-ren hitzak aipatu ditudala, ikus *Catechismea*, latinez *resurrectio mortuorum*. Leizarraga, edonon zabal dabilen sinisgai horretan, gorputz osoaz ari da haragia dionean, zeren ezurrak ere barruan sartzen baitira.

Platonek uste du arima dela, eta arima bakarrik eta ez beste ezer, bakoitzaren ni izatea egiten duena. Gorputza ez omen da laguntzen digun geriza bat baino eta pitagorikoek erabiltzen zuten esaera berriz adieraztera iritsi zen: gorputza arimaren hilobia da (sooma seema). Platonek gogoan zabal erabili zuen arimen trasmigrazioaren dotrina. Johannes Hirschberger, *Historia de la Filosofía*, Barcelona 1965, trad. Luis Martínez Gómez, S. I., I, 85 orr. eta urrengoak.

Ikus Platonen Phaidon, 81-82, bertan esaten baita gaiztoen arimak jira biraka ibiltzen direla inon kokatu ezinik eta horrela ordaintzen dutela aldeazurretik eraman duten bizimoduaren kastigua eta hala ibiltzen omen dira duten gorputz nahiak eraginik berriz gorputz batera lotu arte eta, dagokienez, bizi izan zirenean hartu zituzten ohituretara makurtuko omen dira, eta, gehiegi jatera, ordikeriara eta mozkortzera makurturik zeudenei asto formak edo antzeko animalienak hartzea omen dagokie, tirano izanik gustura zebiltzanei justiziaren kontrako egintzetan eta lapurretan, otso, erroi eta bele formak hartzea omen dagokie, eta abar eta abar. Ikus baita ere Rodolfo Mondolfo, *El pensamiento antiguo*, Buenos Aires 1969, trad. Segundo A. Tri, sexta edición, I, 249 orr.

Greziako filosofiak lehen kristauen arteko pentsaeran izan zuen eragina, apologisten bidez eta hirugarren mendetik aurrera neoplatonismo baten inguruan batez ere Origenes kristauaren bidez, nolakoa izan zen ikusteko begiratu W. Jaeger, *Cristianismo primitivo y paideia griega*, trad. Elsa Cecilia Frost, México 1965.

Beste eskola batzuetan, ordea, ezin kristautu ziren pentsamoldeak korritzen zuten. Ikus dezagun zer dion T. Lucreti Cari Kristo jaio aurretikako lehenengo mendean bizi izan zen poeta epikurozaleak, esate baterako, *De rerum natvra*, lib. III, 136-160:

*"Nunc animum atque animam dico coniuncta teneri
inter se atque unam naturam conficere ex se,
sed caput esse quasi et dominari in corpore toto
consilium quod nos animum mentemque uocamus..."
"...facile ut quiuis hinc noscere possit
esse animam cum animo coniuctam, quae cum animi (ui)
percussast, exim corpus propellit et icit".*

Honentzat "anima" "animo"-ari loturik dago eta honen indarrari jarraitzen dio. Baina, jakina, bai "anima" eta bai "animo"-a ere gaiezko elementu finez osatuak daude eta hilkorrak dira gorputza bezala.

Lucretius poetak aipatzen duen *animus* delakoa bere ustez bularraren erdian zegoen. Euskaldunok aspaldidanik berez dugun joeraz ez genduke halakorik esango, zeren *buru* hitzak pertsona osoaren nortasuna ere adierazten baitu gure artean.

Gaztelaniaz latinezko *anima* eta *animus* hitzek badituzte ondokoak: *alma* eta *ánimo*, baina duten zentzu arruntean ezin esan dezakegu epikurozaleen pentsamoldeari atxikiak daudenik. Edozein modutan ere euskaldunok tradiziozko hizkeratan pareko bezala erabiltzen ditugunak *arima* eta *gogo* dira. Hobeto esateko *gogo* hitzak zentzu horretaz gainera badu beste eremu zabalago batean mogitzeko indarra eta, horrela, gogoak borondatea, nahia eta lehenago gertatu diren gauzak gogoan, hau da, ulertzeko ahala duen horretan, buruan atxikitzea ere adieratzen du. *Arima* hitzaren esan nahia zentzu zabalagokoa da edo norbaitek nahiago balu abstraktoagoa —semantikaren aldetik besterik ez naiz ari— eta

Greziatik erromatarren eta kristauen artean —zenbait gauzatan kontra ez baitzeuden— hedaturikako filosofiaren konotazioak ditu. Eta ni ez naiz sartzen arimak salbatzen diren ala ez butzu sakon horretan, arrunt erabiltzen den esaerak dienez. Elizak baditu doktoreak.

Beraz ez da harritzekoa euskara zaharrean hitzik ez izatea *gorputz* eta *arima* hitzak duten zentzua zehatz adierazteko eta ondorioz prestamoa hartzea. Agian Mitxelena-k esango dit badela *lohi* sinonimo bezala eta arrazoi du, ikus *Fonética histórica vasca*, San Sebastián 1961, 323 orr.: “*lo(h)i* ‘barro, sucio’ (lab. y sul. ant. ‘cuerpo’)”. Azkue-ren hiztegi nagusian esan nahi biak biltzen dira. Baina zentzu horretan, gorputzarenean alegia, ez ote den Iparraldean berandurarte erabiltzen hasi susmoa dator berehala. Jakina, erabili izan den Euskal Herriko hegal batean *lohi* hitza ez da gorputza adierazteko bakarrik erabili, denbora berean beste zentzua ere hartzen baitzuen eta gainera *gorp(h)utz* / *gorphitz* ere erabiltzen baitzen.

Ez dut esango *lohi* hitza zaharra ez denik, gutxiago oraindik erdiko eremuan ez erabilirik hegalekoetan agertzen dela ikusten dugunean. Baina hegalekoetarik batean ez da gorputz hitzak duen zentzuan batere erabili izan, ezagutzen dugun historian bederen. Ez diot ezin hontzat har dezakegunik Mitxelena-k *lot(h)u* hitzaz diona: “...*lohi* ‘cuerpo, lodo’, del cual es derivado *lot(h)u* ‘adherido, pegado, atado’, rad. *lot*”, *Fon, hist. vasca*, 108 orr. Baina horrek ez du esan nahi *lot(h)u* hitzean nahi ta nahi ez *gorputzu* gisako formazioa dagoenik esan nahiaren aldetik, berdin berdin izango bailitzateke *basatu* gisakotik datorrela hontzat hartzea, ikus *Fon. hist. vasca*, 257 orr., *-doi* sufixoak bezalako jatorria izan dezakeela susmoa duela. Bizkaian *lotu* ‘gelditu’ bezala ere erabiltzen dugu, Azkueren hiztegiiko bederatzigarren zentzuan datorrenez.

Vulgatak dionez: *Formavit igitur Dominus Deus hominem de limo terrae, et inspiravit in faciem eius spiraculum vitae, et factus est homo in animam viventem. Liber Genesis, Cap. II, 7.*

Beraz gizona *limo terrae* delakoz egin zuen Jainkoak, hau da, *lurreko lohiz*. Ez ote zituen iturri honek aspaldiko garai batean bultzatu Euskal Herriko hegal bateko elizgizonak *lohi* hitzari gorputzaren zentzua ere ematera?

Jakina, nik ez dut esan nahi *lohi* formak *gorputz* hitzak hartu duen hedadura eta indarra hartu ez baldin balu euskaraz zentzu berbera har ez zezakeenik euskaldun guztien artean, ez duela hartu baino. Eta ez dut uste iritsi garen egorara iritsirik *gorputz* hitza baztertzen ahalegintzeak bururik eta ankarik duenik, batez ere *lohi* delakoa beste zentzu batean argi eta garbi erabiltzen dela gogora badakargu eta *gorputza* adierazteko bigarren maila batean besterik ez.

Eneko pertsona izenaz ere badago zer esan Euskal Herriko historiaren azkenengo garaietan korritu izan duen zenbait eritzi gogoan harturik.

Sabino Arana Goiri-ren eritzia hau zen: "No hay para qué decir que la forma *Ignacio* es la española moderna del nombre del gran Fundador. Las formas antiguas más frecuentes en los documentos son éstas: *Ennesco*, *Enneco*, *Eneco*, *Enego*, *Inneco*, *Inego*, *Innigo*, *Onneco*, *Onnego*, y en la mujer *Innega*, *Onneca*, *Obneca*, *Oneca*. Sus patronímicos más comunes son: *Ennesconis*, *Eneconis*, *Inneconiz*, *Inegonez*, *Inniguez*". "Es indudable que es uno el origen de *Iñigo* e *Ignatius*, por más de que también algún autor se ha negado a admitirlo. La cuestión es hallar una forma primera que explique todas", *Baserritarra*, 31-VII-1897, ikus *Obras completas*, 1352-53 orr., eta beherago forma horren bila saiatzen da eta euskarazkotzat *Iñaki* proposatzen du, egun zabal dabilen izena. Eta ez zen konturatzen San Inazio-k bere izena aldatu egin zuela.

Halatsu pentsatzen zuen Pablo Pedro Astarloa-k ere Arana Goiri-k baino lehenago: "Bascuence: *Iñigo*, castellano: *Ignacio*", ikus *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*, Bilbao 1883, 645 orr.

Eleizalde-k 1910-garren urtean Arana Goiri-ren *Deun ixendegi euzkotarra* Bilbon argitara zuenean *Eneco* erantsi zuen erdarazkoen artean *Iñigo* formaren ondoan eta honen aldaera bezala, euskarazkoen artean *Eneka* gizonzkoentzat eta *Eneke* emakumezkoentzat ipinirik, eta badirudi oharretan aipatzen diren erdarazko saildu izendegi Bartzelonan argitaraturikako bietarik bat dela gutxienez horren iturria, eta saildua *Eneko* Oña-ko apata XI-garren mendean bizi izan zena. Ikus *Enneco*, *Onniensis abba*, *confirmans* (1045, *CSM*, dok. 125).

Eleizalde-k geroago 1912-garren urtean (*Euzkadi*, IX, 315-316 orr.) nota labur batean esan zuena, Mitxelena-k adierazi digunez, ikus *Euskera* XX (1975), 357 orr., Ameriketako elez gizonen batek —izenik ez du ematen— izkribatu zionari erantzunik egin zuen. Hain zuzen ere kartan urrengo hau omen diotsa: "A propósito de *Iñigo* o *Ignacio* de Loyola, le voy a copiar unas líneas de *Histoire de Saint Ignace de Loyola*, par J. M. S. Daurignac, troisième édition, tome premier, Paris, 1878. En la página 9, en la nota (2), se lee: *Eneco dans le dialecte des monts Cantabres est le même nom qu'Iñigo dans la langue espagnole. Saint Ignace porta le nom d'Iñigo jusqu'en 1534 environ. A cette époque, il prit le nom d'Ignace par dévotion et par respect pour l'évêque martyr d'Antioche, ainsi qu'il l'explique lui-même dans une de ses lettres à François de Borgia, alor duc de Gandie*. Se me olvidaba el texto que dice fue bautizado sous le nom d'*Eneco*", *Euzkadi* IX (1912) 315-316 orr. Hark ipini zuen benetako hestutasunetik ateratzeko *ene* formatik *Eneko* etortzea, besterik probatzen ez den bitartean, azalpen egokitzen hartzen du eta horren iturria nolabait H. Schuchardt-en lan batean dago, "Iberische Personennamen", *RIEV* III (1909), 242 orr., Ascoli-ko *Ennecensis* —orduan *Ennegensis* irakurririk— Akitania-ko *Enne-* formarekin konparatzen baitu, cfr. *Ennebo(n)x*, *CIL* XIII, 194, ara marmorea, rep. Montsérié, nominatibo kasuan, *-bon-* daramala atzean.

Gainera ezin utz daiteke aipatu gabe Joannes d'Etcheberri Saran jaiok eta Azkoitiko hirian midiku izan zenak *Laburdiri escuararen hatsapenac* lanean XVIII-garren mendearen haseran honela izkribatu zuela: *ecen istorioen eredura Eneco, eta Semeno Nafarroaco Erregue içan ciren, ceinen icenec asqui clarqui aditcera emaiten baitarocute Escualdun icenac direla*, ikus *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)*, Julio Urkijo-k Parisen 1907-garren urtean argitaratua, 34 orr. Hau ere Eleizalde-k irakur zezakeen, lehen aldian egin ez bazuen —eta ez dirudi egin zuenik— bigarreanean bederen. Jakina, H. Schuchardt-ek ere bai. Menendez Pidalek eta Tovarrek, beherago ikusiko dugun bezala, ez zuten honen berririk.

Hala ere geroagoko urteetan *Eneka* ipini izan da gizon izen bezala, adibidez Zumaian 1923-garren urteko ekainaren

20-an, agian Eleizalde-k esanikakoa gehiegi zabaldu ez zelako edo eta, hobeto esateko, gainerako sistema osoaren kontra egonik —*magister dixit*— inor horretan ahalegindu ez zelako.

Hainbat urte dira antroponimia zaharraz gaiak biltzen ari naizela eta *Eneko* izenaz ere mordo bat ditut argi eta garbi eta dudarako lekurik gabe lehen pertsonaren genitibotik datorrela probatzen dutenak eta ene inguruan ibili direnen artean sarri mintzatu naiz horretaz. Laster argitaratzeko dudan beste lan batean gai hau bereziki tratatu dudanez gero ez naiz hemen asko luzatuko.

Ene Peruco (1366, *PN-XIV-FPamp.-Mont.*, 551 orr.) *en la villa de Echerri d'Araynaz*, ikus Juan Carrasco Pérez, *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Pamplona 1973, *Maria Enea* (id. 541 orr.) *en el Burgo de Sant Cernin, Peru Enea* (1366, *PN-XIV-FEst.*, 611 orr.) *Esteilla*-n. Harrigarriro A. Apat-Echebarne-k *enea* 'casa de' itzultzen du erdarara, toponimoa ez dela, pertsona izena baino, ikus *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*, Pamplona 1974, 123 orr.

Ene izenaren patronimikoa ere agertzen da Sigena-ko dokumentuetan: *don Garcia de Petrus Eneç* (1187-1190, dok. 2), ikus Agustín Ubieto Arteta, *Documentos de Sigena*, Valencia 1972. Sigena-ko Monasterioa Huesca-koa baita lehenago euskaraz egin izan zen alderdian gertatzen da.

Eta gero badaude zenbait aldaera sufijo diferenteak dituztela, hala nola *Eneko*, *Enetxo*, *Eneki*, *Enexo*, *Enesko* —hau Arana Goiri-k ere aipatzen du nondik hartu duen esan gabe gorago ikusi dugun bezala—, *Enenko*, *Eñeto*, *Eñetza*, eta abar, oraingo euskal ortografiaz ematen ditudanak eta aipaturikako lanean zehatz eta mehatz arakaturik ikusi ahal izango direnak.

Ikus M. Pidal-ek diona, XII-garren mendeko dokumentazioa aipaturik, *Meo Annaia* >*Minaya* eta horrelakoez, berez *Ene anaia* formaren erdal itxurazkoak besterik ez baitira ene ustez, *Toponimia prerrománica hispana*, Madrid 1968, reimpresión, 229 orr. eta urrengoak.

Ikerketa hauetan sartu baino lehenago intuizio hutsez *Eneko* euskaldunen arteko pertsona izen bezala ematen nuen Euskal Akademiara halakoan eske etortzen zitzaizkidanean

eta behin Ifar Euskal Herrira joan ginen batean izena esango ez dudan Euskal Akademiako jakintsu handi batek jatorriz kanpotikakoa zela erantzun zidan. Argi dago maisuagoaren eritzia ere halatsu zela, gorago ikusi den bezala.

M. Pidal-ek ez du hontzat hartzen H. Schuchardt-ek, gorago aipatu dugunez, proposatzen duen konparazioa *Ennedelakoari* azkenengo kontsonante belarra falta omen zaiolako, eta, gainera, Italian herri bat agertzen baita *Énego* izenez, ez du uste iberikoa denik, zaharra bada ere. Hala dio: "¿pertenece a un substrato pre-ibérico?" eta gainera badirudi uste duela pertsona izena toponimotik datorrela eta ez bestela, ikus R. Menéndez Pidal, con la colaboración de A. Tovar, "Los sufijos españoles en "-z", y especialmente los patronímicos", *BRAE* XLII (1962) 432-437 orr. Guretzat ez dago dudarik *Ene* formak sufijo diminutibo diferenteak har zitzakeela, gehienak oraindik euskaraz irauten dutenak.

Migel Unamuno-k bere tesisa 1884-garren urtean aurkeztatu zuen eta euskal gaia landu zuen. Honela dio bere eskuz izkribaturikako portadak: "Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca. Tesis del doctorado en la facultad de Filosofía y Letras leída en Madrid el día 20 de junio de 1884 por Miguel de Unamuno y Jugo. Nota. Obtuvo la calificación de *sobresaliente*, siendo ponente D. Antonio Sánchez Moguel". Batez ere hizkuntza ikutzen du, ikus *Obras completas*, IV, 85 orr. Beherago dio: "Es el pueblo vasco un pueblo que se va como con gráfica frase le señaló Reclus, pero que va, no a anonadarse, sino a asimilarse, a perderse como el arroyo en las grandes corrientes del anchuroso río. Pero antes que se vaya el docto investigador que busca en los ignotos riachuelos las fuentes del gran río, interroga a ese pueblo por su misterio, y todos acudimos a recoger su último aliento", 88 orr. Argi dago gero 1901-garren urtean Bilbon egin ziren Lore Joko famatuetan esan zituenak bere haserako lanetan ere agiri direla eta beragan bizitza osoan suntsituko ez zen postura bat osatzen zutela, gorago ere ikusi ahal izan dugunez.

Edozein modutan ere lan beretik ateratzen dugu: "Continué mis investigaciones y me hallé con que el nombre con que el euskera designa al oro, *urra*, recuerda al latín *aurum* [sic, dudarik gabe erratua, *aurum* behar lukeela], y más aún el

céltico *or, oir*; y prueba de que tal vocablo es de origen extraño es que en Vizcaya a la plata llaman *urre*, y al oro, *urregorri*, esto es plata roja [nik umetan *urrezuri* eta *urregorri* ikasi nuen amaganik]. Pero el nombre general de la plata es *zillarrá*, que recuerda el escocés *siller*; el inglés *silver*; alemán *silber*; godo *silubra*, etc.", 117 orr.

Ez dut esku artean Unamuno baino lehenago euskara beste hizkuntza batzuekin konparatzen ari izan zirenen arteko lanik eta horregatik ezin baieza edo ezeza dezaket momentu honetan bigarrego adierazten duen korrespondentzia lehenago inoren burutik iragan ote zen, baina edozein modutan ere tesis egileak ez du kasu honetan iturririk aipatzen, bai, ordea, beste batzuetan. Hala ere Unamuno-ren lan hau 1966-garren urterarte argitara gabe egonarren konparazio horrek gai horietan arduratu izan direnen artean lehenagotik korritu du. L. Mitxelena-k hontzat hartzen du, ikus *Sobre el pasado de la lengua vasca*, San Sebastián 1964, 140 orr.: "Habría que mencionar aquí la semejanza que se advierte entre el nombre vasco de la 'plata', *zil(h)ar*, *zirar*, y el de ese metal en varias lenguas indoeuropeas, no célticas, como gót. *silubr*, etc.". Geroago Botorritako izkrizio zeltiberikoan agertzen den *silabur* forman —berdin irakur daiteke *silabur* nahiz *silabr*— euskarazko *zil(h)ar*, *zirar* delakoaren aintzinekorik hurbilena ikusten du, cfr. Javier de Hoz, Luis Michelena, *La inscripción celtibérica de Botorrita*, Salamanca 1974, 32-33 orr.

Unamuno-ren delako tesisetik ateratzen dugu hau ere: "anterior a la voz *Jaungoiko* y muy anterior tuvo que ser la voz *jau* o *jabe*, que entra en su composición e indica el poseedor, hoy Señor", 119 orr., ikus baita 113 orr. ere. Orainsu artikulua bat irakurri ahal izan dugu Yu. V. Zytsar'ek egina, "El vasco jaun 'señor', etc." *Fontes-en FLV* 22 (1976), 55-64 orr., eta bertan *jaun* eta *jaube* jatorri bereko bezala arakatzen dira, orain korritzen duen metodologia erabilirik.

Baditu gauza jakingarri gehiago ere orain aipatuko ez ditudanak.